

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Mikel Garmendia Olaziregi Belarra

*Ordizia,
Gipuzkoa
(1915-2015)*

Aurkibidea



Biografia

Donostiako Amarazar auzoan
jaio bazen ere, lau urte
zituela joan zen Ordiziara bizi
izatera; bertan igaro zituen
hautzaro eta gaztaroa. Oso
gazte zela sortu zitzaion
politikarako grina. Batzokiko
atezainen semea izanik,
aktiboki parte hartzen zuen
bertan egiten ziren
ekintzetan, antzerki eta
dantza taldeko kide ere
bazela. "Solidaridad de
Trabajadores Vascos"eko
idazkaria ere izan zen, eta,
Euzko Langile aldizkaria
saltzen zuen Beasain eta
Ordiziako kaleetan zera
oihukatuz: " Euzko langile,
obrerismo, cristianismo y
vasquismo, lean y propaguen
el último artículo de Leon
Barrenetxea". 1936 urtean,
Nazionalak Ordiziara sartu
zirenean, herritik alde egin
zuen eusko gudariekin bat
egitearren. Intxarkudia
batailoieko kide, mendirik
mendi ibili zen nazionalen
kontra borrokatuz, espioitza
lanak ere eginez. 1937.
urtean, komisario politiko
izendatu behar zutenean,
Santoña inguruan atxilotu,
eta heriotz zigorra ezarri
zioten. Bi urtez egon zen
kartzelan exekuzioaren zain,
kideak nola eramaten
zituzten ikusten, baina berari
ez zitzaion momentua heldu
eta 1939an baldintzapeko
askatasuna eman zioten.
Honela, kartzelatik atera
zenean, soldaduska egin
beharra izan zuen. Bueltan
"Valle de los caídos"en lan
fortzatuak egitea egokitu
zitzaion, baina Madrilera
heltzean, identitate faltsu bat
lortu eta Malagako
probintziara ihes egin zuen,
Bilorek bertan zuen lantegi
batean lan egitera. Hasieran
etxetik ateratzeko beldurrez
ibiltzen zen, baina segituan
ohitu zen bere bizileku
berrira. Ezkondu eta bi alaba



Zintak

ORD-052

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Pildain Larrañaga, Itziar
- **Data:** 2012-11-20
- **Iraupena:** 73 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

ORD-053

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Pildain Larrañaga, Itziar
- **Data:** 2012-11-20
- **Iraupena:** 68 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2025-12-01

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com